



ZIURTAPEN PRAKTIKEN DEKLARAZIOAREN EGUNERATZEA

Erreferentzia: IZENPE-ACTUALIZACIÓN DPC

Bertsio zkia.: v 4.9.1

Data: 2011ko uztailaren 8a

© IZENPE 2011

Dokumentu hau IZENPErena da. Osotasunean soilik erreproduzi daiteke.

■ Beato Tomás de Zumárraga
71 - 1ª Planta
01008
Vitoria - Gasteiz

www.izenpe.com
info@izenpe.com
Tel.: 945 017 490



Bertsioen kontrola

Bertsioa	Data	Egilea(k)	Aldaketak/Iruzkina
4.9.1 bertsioa ZPDaren 4.9 bertsioaren eguneratzea da	2011/07/08	IZENPEren Aholkularitza Juridikoa	ZPDaren 4.9 bertsioan eragin diren aldaketak



Informazio orokorra

Dokumentuen kontrola

Izenburua:	Ziurtapen Praktiken Deklarazioa eguneratzea.
Erreferentzia-kodea:	
Bertsioa:	4.9.1
Argitalpen-data:	2011/07/08
Onespen-data:	2011/07/08
Erabilitako dokumentazioa:	ZPD 4.9



IZENPE, SAREN Ziurtapen Praktiken Deklarazioak, 8. epigrafearen arabera, Ziurtapen Praktiken Deklarazioan aldaketak egiteko aukera ematen du. Aldaketa horiek dokumentu honetan jaso badira ere, IZENPE, SAK ematen dituen ziurtagiriak eskatzen edo erabiltzen badituzu, edo ziurtagiri horietaz fidatzen bazara, nahitaez ezagutu beharko duzu oso-osorik Ziurtapen Praktiken Deklarazio eguneratua.



1. SARRERA: ZIURTAGIRIAK ETETEA ETA BERRITZEA / ZERBITZUEN ERABILGARRITASUNA

Zuzenketa:

IZENPEk, ziurtapen-zerbitzuen egile gisa, honako zerbitzu hauen erabilgarritasuna erregulatzen du:

- Ezeztatzeko eta eteteko zerbitzua.
- Ziurtagirien egoeraren egiaztapena.
- Ezeztatutako ziurtagirien zerrenden kontsulta.

Zerbitzu horiek beti daude erabilgarri, 24x7. Nolanahi ere, sistemak edo zerbitzuak huts egiten badu, edo IZENPEren kontrolpean ez dagoen beste faktore batek huts egiten badu, IZENPEk ahalegin guztiak egingo ditu zerbitzua 24 ordutan, gehienez, erabilgarri egoteko (ikus ZPDa, 4.4.11, 4.4.12 eta 4.4.13 epigrafeak).



2. SARRERA: ZERBITZUA AMAITZEA

Zuzenketa:

IZENPEk jarduera uzten badu, harpidedunei ez ezik honako beste hirugarren hauei ere eman beharko die IZENPEk jarduera uztearen berri: ziurtapen-zerbitzuen egileei, nabigatzaileen fabrikatzaileei, eta, ziurtagirien erabileraren arloan, IZENPErekin kontratuturaren bat duen entitate orori. IZENPEren Zuzendaritza Nagusiak du jakinarazpen horren erantzukizuna, eta jakinarazpen horretarako biderik egokiena zein den erabakiko du (ikus ZPDaren 4.9.1 epigrafea).



3. SARRERA: GAKO PRIBATUA DEUSEZTATZEKO METODOA

Zuzenketa:

CAren gakoak deuseztatzeko prozedurari dagokionez eta, zehazki, prozedura hori sinadura-
edo kautotze-gakoei ez aplikatzeari dagokionez, azalpen hori ezabatu egiten da, IZENPEk ez
baititu azken erabiltzailearen gakoak gordetzen (ikus 6.2.8 epigrafea).



4. SARRERA: JAULKIPEN ESKAERA, EZEZTAPEN TEKNIKOEN KASUAN

Zuzenketa:

Ziurtagiria –edo harekin lotzen den dokumentazioa– jaulkitzean eta/edo banatzean akats teknikoak gertatzeagatik egiten den ezeztapenaren ondoriozko eskaeren kasuan, ez da beharrezkoa izango ziurtapena berriro jaulki dadin eskatzea. Zehaztapen hori gaineratu da (ikus 4.1 epigrafea).



5. SARRERA: DATUEN TRUKE ZIFRATUA

Zuzenketa:

Zehaztu da identifikazio-puntuen eta RAen arteko datuen trukeak zifratuta egiten direla, beharrezko konfidentzialtasuna ziurtatzeko (ikus 6.5.1 epigrafea).

—